



1.ZKI.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KUOTAK ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUEN
ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Ondasun Higiezin Zergaren, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14.3 artikulua ematen duen baimenez baliatuz, ondorengo artikuluan adierazten diren terminoetan ezartzen du, zerga horren karga mota.

II.-KARGA MOTAK

2. Artikulua.

1.- Hiri izaerako ondasunei aplikagarri zaien, Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga mota, ERANSKINEAN adierazten den ehunekoak izango da.

2.- Landa izaerako ondasunei aplikagarri zaien, Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga mota, ERANSKINEAN adierazten den ehunekoak izango da.

III.- OINARRI ZERGAGARRIA ETA KUOTAK

3. Artikulua.

1.- Hiri Izaerako Ondasunei aplikatzen zaien Ondasun Higiezin gaineke Zergaren oinarri zergagarria bere balio katastralaz osatuta egongo da.

2.- Landa Izaerako Ondasunei aplikatzen zaien Ondasun Higiezin Zergaren oinarri zergagarria, arauz onartutako balio katastralaz osatuta egongo da.

3.- Zerga horren kuota osoa zehazteko, aurreko ataletan adierazten diren Oinarri Zergagarri bakoitzari dagozkion karga motak, Ordenantza honen 2. artikuluan zehazten direnak, aplikatzen zaizkie.

4.- Kuota likidoa, Ordenantza honetan aurreikusitako hobarien zenbatekoan kuota osoa gutxituz lortuko da.

IV.- EXENTZIOAK

4. Artikulua.

Uztailaren 5eko 12/1989 Arau Foralaren 4. artikuluan jasotakoak aplikatuko dira, Tokiko Zerga-Ordainketaren sistema erreformatzen duen martxoaren 19ko, 4/2003 Arau Foralak emandako idazketarekin, eta zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Arau Foralak artikulua beraren f) letrako 2. zatian egindako aldaketarekin eta azkenean, zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen abenduaren 1eko 8/2006 Arau Foralak artikulua beraren a) letrako 1. zatian egindako aldaketarekin.

Halaber salbuetsiak egongo dira, herri titularitatekoak diren osasun zentroen titularitatepeko ondasunak, baldin eta, esandako zentru horien helburu zehatzak betetzera behartuta badaude.

V.- HOBARIAK

5. Artikulua.

Ondorengo hobariak aplikatuko dira:



A) Eguzki-endarra autokontsumorako aprobetxatzeko sistema dutenentzat:

A.1.-Jabetza horizontalaren araubideari lotuta ez dauden higiezinak:

Baldintza: Eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzea autokontsumorako.

Hobaria: — Zergaren kuota osoaren gaineko hobaria izan ahal izango dute instalazioa amaitu ondorengo 30 zergaldietan, honako baldintza hauen arabera:

- a) Instalazioek udal lizentzia izatea.
- b) Beroa ekoizteko instalazioek kolektoreak izatea. Kolektoreek administrazio eskudunaren homologazioa izatea, eta gutxienez 4 m².
- c) Aprobetxamendu elektrikorako sistemen kasuan, gutxienez 1 kw-ko potentzia izatea.
- d) Instalazioak bizitegi-erabilerako higiezinetan egin badira, hobaria % 50ekoa izango da; bizitegi-erabileraz bestelako higiezinetan egin badira, % 25ekoa.

Hobariaren zenbatekoa:

- Bizitegi-erabileraz: hobari osoa ezingo da izan instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50 baino handiagoa –1.000 euroko muga–.
- Bizitegi-erabileraz bestelako erabileraz: hobari osoa ezingo da izan exekuzio materialaren kostuaren %50 baino handiagoa –3.000 euroko muga–.
- Hobariaren zenbatekoa: Instalazioa jartzeko jasotako dirulaguntzen eta hobarien baturak (Aretxabaletako Udalarena barne), ezin izango du instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50a gainditi. Hori egiaztatzeko, jasotako dirulaguntzen frogagiriak aurkeztu beharko dira.

A.2.- Jabetza horizontalaren araubideari lotutako eraikinetan kokatutako pisuak eta lokalak.

Baldintza:

- Jabetza horizontalaren araubideari lotutako eraikinetan kokatutako pisuak eta lokalak. Baldintza: - Instalazioa partekatua izango da pisu edo lokal guztiak edo batzuk energia hornitzeko edo pisu edo lokal bakar baterako indibiduala izateko.
- Pisu edo lokal instalazioari lotuta egotea.

Hobaria:

- Hobaria % 50ekoa izango da.
- Bat baino gehiagoren arteko instalazioa denean, hobaria partaide guztien artean banatuko da autokontsumoan duten partehartzearen arabera.

Hobariaren zenbatekoa:

- Hobari osoa ezingo da izan jabe bakoitzari jasanarazitako instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50 baino handiagoa.
- 5kw baino gehiagoko instalazioen kasuan: 3.000 euroko muga.
- Gainerako instalazioen kasuan: 1.000 euroko muga.
- Hobariaren zenbatekoa: Instalazioa jartzeko jasotako dirulaguntzen eta hobarien baturak (Aretxabaletako Udalarena barne), ezin izango du instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50a gainditi. Hori egiaztatzeko, jasotako dirulaguntzen frogagiriak aurkeztu beharko dira.

A.3.- Hobariaren eskaera egiteko:

Epea:

- Hobariaren iraupena amaitu aurreko edozein unetan.
- Eskatzen den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

Aurkeztu behar den dokumentazioa eskaera egiterakoan:

- Proiektua edo memoria teknikoa.
- Teknikari eskudunak egindako aitorpena, dagokion elkargo ofizialak bisatua/onartua.
- Teknikari eskudunaren aitorpena aurkezten ez denean: gaikuntza teknikoaren egiaztatzea, berariaz justifikatuko duena instalazioak aurreko paragrafoetan ezarritako



(eta hobariaren xedeen) baldintza guztiak betetzen dituela. Jabetza horizontaleko erregimeneko pisu eta lokalen kasuan, aurreko horiez gain: - Instalazioan parte hartzen duten jabeen zerrenda eta bakoitzari jasanarazitako kopuruak adierazten dituen agiria. - Egokitzat jotzen den beste edozein dokumentazio.

A.4.- Ez da hobaririk emango: Araudiaren arabera aprobetxamendu termikoko edo elektrikoko sistemak instalatzea nahitaezkoa denean eta legeak eskatzen duen kopuruan. Hortik aurrerarako instalazioek, aurrean aipatutako baldintza eta hobari berdinak jasoko lukete.

- B) Eusko Jaurlaritzaren, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartuko Bizigune programaren barruan erabilera-lagapena duten, ondasun higiezinari dagokionez, zergaren kuota osoaren %50a Hobari hori aplikatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da Udaletxean.
- C) Familia/elkarbizitza unitate ugarietzat hobaria aplikatuko da, oinarri ezargarrien muga ezarrita. Hobarien portzentajeak, diru sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera kalkulatu dira, honela hain zuzen :
- Oinarri ezargarria :

Seme-Alabak	Urteko sarrera gordinak				
	0 -12.000 €	12.000-24.000 €	24.000 - 50.000 €	50.000- 90.000 €	90.000 €tik gora
1-2	% 60	% 0	% 0	% 0	% 0
3	% 90	% 90	% 50	% 20	% 0
4	% 90	%90	% 70	%40	% 0
5 edo gehiago	% 90	% 90	% 90	% 60	% 0

Ezinbesteko baldintza izango da familia ugariaren tituluan hiru seme-alaba edo gehiago agertzea.

Familia/Elkarbizitza unitateen seme-alabetako batek desgaitasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, Familia/Elkarbizitza unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezala kontatuko da.

39/2015 Legearen 28.2 artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Aretxabaletako Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea
- Foru Ogasuna: PFEZ kontsulta
- Gipuzkoako Foru Aldundia: PFEZ kontsulta
- Katastroko Zuzendaritza Nagusia: Katastroko datuen kontsulta
- Foru Ogasuna: Ondasun Higiezinaren kontsulta
- Eusko Jaurlaritza: Familia ugarien tituluen kontsulta

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Interesdunaren eskaeran erantzukizunpeko adierazpen bat eskatuko da, non adieraziko den, eskatzaileak unitate horretako gainerako kideei jakinarazi diela eragiten dieten zerga-datuei buruzko kontsulta hori egingo dela eta haien baimena duela.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

Zerga hobariaren mugak

- Katastro balioa 200.000 euro baino handiagoa bada, hobaria aplikatuko da baina gehienez ere balio horren gainean.



- Oinarri ezargarriaren muga zehazteko, hobaria aplikatu beharreko aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik (oinarri ezargarri orokorra+aurrezpenaren oinarri ezargarria/likidagarria) hartuko da, betiere Familia/Elkarbizitza Unitatea osatzen duten kide guztiak kontuan hartuta.
- Familia ugaria izateagatik ematen den hobaria bateraezina izango da OHZri buruz ezarritako edo ezar daitezkeen beste hobari batzuekin.
- Hobari hauek bakarrik aplikatuko zaie: Familia unitatea bizi ohi den ondasun higiezinan dauden etxebizitzari eta ganbarari edo trastelekuari.
- Ohiko bizitegi izaera emateko ondasun higiezin bati, ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan erroldatuta egotea zerga hobaria izateko eskubidea duten familiako kide guztiak.
- Ez du izango atzeraeraginik, hau da, hobari eskabideak aurkezten den urteko zergan izango du eragina.

Hobariarekin baliatzeko baldintza formalak.

- Familia ugariaren titular izaera zergaldiari dagokion sortze egunean (urte bakoitzeko urtarilaren 1ean) eduki beharko da. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Interesdunaren eskabidea, identifikatu beharko dira eskatzailea eta hobari eskatzeko xede den ondasun higiezinak.
- b) Dirusarreraren maila zerga onuraren aurreko ekitaldian aurkeztutako PFEZaren arabera zehaztuko da, Familia/Elkarbizitza unitatea osatzen duten kide guztiak kontutan hartuta. PFEZaren aitortzea egin beharrik ez izanez gero, dagokion ziurtagiria aurkeztuko da.

VI.-GAINKARGUA

6. Artikulua.

Uztailaren 4ko Foru Arauaren babesean, zergaren kuota likidoaren gainean %100eko gainkargua aplikatuko zaie ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerarako etxebizitzari ondorengo baldintzak betetzen dituztenak salbu:

- a) Errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritakoak (Bizigune, Alokabide). Lagapen-kontratuak aurkeztu beharko dira, aurreko urteetan sinatutakoak eta indarrean daudenak. Baita ere, alokairu kontratu pribatua dutenak (kontratua aurkeztu beharko dute eta EAEko hiri-finken errentamentu-kontratuen erregistroko ziurtagiria). Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez da onartuko doako lagapenik edo prezio sinbolikoa duten kontraturik.
- b) Etxebizitzaren titularrak hil denetik urtebeteko epea igaro ez denean, heriotza egunetik zenbatuta. Inguruabar hau egiaztatzeke, heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- c) Jarduera ekonomikoetara bideratutako etxebizitzak, ezinbestekoa izanik JEZen altan egotea.
- d) Ohiko bizitokia ez den etxebizitza, osasun arazo larriengatik.
- e) Bere jabetzari buruz erabaki bat hartu ahal izateko, judizio prozesuan dagoen etxebizitza.
- f) Bi etxebizitza elkartzetik ateratako etxebizitza.
- g) Hirigintza Departamenduak, bizitzeko gai ez den etxebizitzat hartutako etxebizitza. Inguruabar horiek Hirigintza-saileko teknikariek xede horretarako bideratutako txostenaren bidez azalduko dira.
- h) Zaharberritze osoa egiteko obra baimena duten etxebizitzak.
- i) Ofizialki onartutako dependentzia egoera dela eta etxebizitzan inor erroldaturik ez izatea (gehienez ere etxebizitza bat):
.Ofizialki onartutako dependentzia egoera dela eta etxejabea beste etxebizitza batera aldatu beharra izan duelako inor erroldatu gabe gelidtu den ohiko etxebizitza (gehienez ere etxebizitza bat). Inguruabar hori mendekotasuna egiaztatuko duen dokumentua aurkeztuta eta erroldatze agiriarekin egiaztatuko da.
- j) Zahar-etxeetan erroldatuta dauden hirugarren adineko pertsonen jabetzakoak diren etxebizitzak (gehienez ere etxebizitza bat). Inguruabar hori egiaztatzeke, errolda agiria eskatuko da.
- k) Urte batetik gorakoa den laneko mugikortasuna dela eta ohiko bizilekua ez diren etxebizitzak. Lan mugikortasuna, beranduenez ere zergaren sortzapen eguna baino 2 urte lehenago gertatzea, eta subjeto pasiboa ordura arte Aretxabaletan erroldatuta egotea. Gainera subjeto pasiboaren eta bere enpresaren arteko akordioa aurkeztu beharko da, lan mugikortasuna hori egiaztatuz.
- l) Etxebizitza erosi denetik urte beteko epean, jabetza baimena ematen denetik edo eskritura egiten denetik kontatzen hasita.

VII.- GESTIO ARAUAK

7. Artikulua.

1.- Zerga hori gestionatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ahalmenak, Gipuzkoako Foru Diputazioaren esku delegatu ahal izango dira, Udalbatzak zehaztuko dituen termino, eduki eta zenbaterainokoa, horretarako dagokion hitzarmena sinatuz.

2.- Hartutako udal erabakia, behin onartu ondoren, G.A.O.n argitaratuko da.

VIII.- AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza fiskala eta bere eranskina 1989ko irailaren 29an izandako Osoko bilkuran onartua izan zen eta 1990eko urtarrilaren batean indarrean sartu zen. Ordenantza hau aplikatu egiten da aldaketen historialean jasotzen diren aldaketekin eta indargabetzea erabakitzen den arte indarrean egongo da.

IX- ALDAKETEN HISTORIALA

Osoko bilkuran onartutako eguna	G.A.O.n argitaratutako zenbakia eta eguna	Indarrean sartu den eguna	Aldatutako artikulua
1989 IRA 29	247- 89 ABE.30	90 URT 1	Hasierako onarpena
1990 URR 04	250- 90 ABE 31	91 URT 1	Zerga tipoak
1991 IRA 26	248- 91 ABE 31	92 URT 1	Zerga tipoak
1992			Ez dago aldaketarik
1993			Ez dago aldaketarik
1994 MAR 29	74 - 94 API 22	94 URT 1	Itunpeko ikastetxe pribatuen exenz.eta %50 hobaria babes ofizialeko etxebizitzetzi
1994 URR 10	234- 94 ABE 13	95 URT 1	Zerga tipoak
1995 URR 09	233- 95 ABE 11	96 URT 1	Hiri zerga tipoa
1996 URR 07	237- 96 ABE 10	97 URT 1	Zerga tipoak
1997 URR 06	243- 97 ABE 22	98 URT 1	Zerga tipoak
1998 URR 22	247- 98 ABE 29	99 URT 1	Zerga tipoak
1999 URR 18	247- 99 ABE 28	00 URT 1	Zerga tipoak
2000 URR 16	246- 00 ABE 29	01 URT 1	Zerga tipoak
2001 URR 15	249- 01 ABE 31	02 URT 1	Zerga tipoak
2002 URR 14	247- 02 ABE 31	03 URT 1	Zerga tipoak
2003 URR 09	249- 03 ABE 31	04 URT 1	Zerga tipoak eta Art.3,4,5 eta 6
2004 MAI 10	129- 04 UZT 08	04 URT 1	2 hobari berri
2004 URR 13	247- 04 ABE 27	05 URT 1	Zerga tipoak
2005 URR 10	247- 05 ABE 30	06 URT 1	Zerga tipoak
2006 URR 16	247- 06 ABE 30	07 URT 1	Zerga tipoak
2007 URR 08	243- 07 ABE 14	08 URT 1	Zerga tipoak eta hobariak
2008 URR 13	251- 08 ABE 31	09 URT 1	Zerga tipoak eta hobariak
2009 URR 05	246- 09 ABE 30	10 URT 1	Zerga tipoak eta b) hobaria
2010 URR 07	244- 10 ABE 23	11 URT 1	Zerga tipoak eta a) hobaria
2011 URR 10	239- 11 ABE 20	12 URT 1	Zerga tipoak eta a) hobaria
2011 URR 10	4- 12 URT 05	12 URT 1	Zerga tipoak balore katastralen igoeragatik
2012 URR 22	248- 12 ABE 31	13 URT 1	Zerga tipoak,hobariak eta gainkargua.
2013 URR 21	246- 13 ABE 27	14 URT 1	Zerga tipoak eta gainordaineko salbuespenak.
2014 URR 20	240- 14 ABE 17	15 URT 1	Zerga tipoak eta gainordaineko salbuespena.
2015 MAI 25	129- 15 UZT 09	15 UZT 9	Errekargua ez aplikatzeko m) baldintza
2016 EKA 28	166- 16 ABU 31	17 URT 1	Zerga tipoak balore katast.ald.
2016 URR 17	246- 16 ABE 29	17 URT 1	C) hobaria
2017 URR 19	239-17 ABE 18	18 URT 1	Bizitokien zerga tipoa
2018 URR 30	248-18 ABE 27	19 URT 1	Bizot.zerga tipoa eta c) hobar
2019 URR 23	244-19 ABE 23	20 URT 1	Bizitokien zerga tipoa
2020 URR 22	245- 20 ABE 23	21 URT 1	C) Hobaria
2021 URR 18	245 -2021 ABEN 24	2022 URT 1	Bizit.zerga tipoa, A)Hobaria – Errekargua ez



			aplikatzeko n) baldintza
2022 URRIAK 17	237 -2022/12/16	2023 URT 1	A)Hobaria-muga, bizitokien zerga tipoa
2023 URRIAK 11	245 – 2023/12/22	2024 URT 1	Hirilur Biz. Zerga tipoa
2024 URRIAK 10		2025 URT 1	Hobariak, errekaragoa, zerga tipoa

ERANSKINA

Udalbatzarra izandako eguna: 2024/10/10

Industria lurzoruan edo hirugarren sektorekoan, dauden hiri ondasunen, Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga mota, balorazio ponentzien arabera, ehuneko 0,600 koa da.

Gainontzeko hiri ondasunen Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga mota, onartutako balorazio ponentzien arabera, ehuneko 0,2948 koa da.

Landa Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga mota, ehuneko 1,1 koa da.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

Nº 1

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

=====

I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art.14.3 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.

II.- TIPOS DE GRAVAMEN

Artículo 2.

1.- El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza urbana queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.

2.- El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de Naturaleza Rústica, queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.

III.- BASE IMPONIBLE Y CUOTAS

Artículo 3.

1.- La base imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicado a Bienes de Naturaleza Urbana, estará constituida por su valor catastral.

2.- La base imponible del Impuesto de Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de Naturaleza Rústica estará constituida por el valor catastral reglamentariamente aprobado.

3.- La determinación de la cuota íntegra de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el art 2 de esta Ordenanza.

4.- La cuota líquida se obtendrá minorando la cuota íntegra en el importe de las bonificaciones previstas en esta Ordenanza.

IV.- EXENCIONES

Artículo 4.

Se aplicarán las señaladas en el artículo 4º de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, en su nueva redacción dada por la Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del sistema de Tributación Local modificada a su vez en la letra f) del apartado 2 de dicho artículo por la Norma Foral 10/2005, de 28 de octubre, por la que se aprueban determinadas medidas tributarias y modificada finalmente en la letra a) del apartado 1 de dicho artículo por la Norma Foral 8/2006, de 1 de diciembre, por la que se aprueban determinadas medidas tributarias.

Así mismo, están exentos los bienes de que sean titulares los centros sanitarios de titularidad pública siempre que los mismos estén directamente afectados al cumplimiento de los fines específicos de los referidos centros.

V.- BONIFICACIONES

Artículo 5.

Se aplicarán las siguientes bonificaciones:

A) Para los que dispongan de un sistema de aprovechamiento de energía solar para el autoconsumo:

A.1.- Inmuebles no sujetos al régimen de propiedad horizontal:

Condición: instalación de sistemas de aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar del sol para el autoconsumo A.

Bonificación:

- Podrán beneficiarse de la bonificación sobre la cuota íntegra del impuesto en los 30 períodos impositivos siguientes a la finalización de la instalación, con arreglo a las siguientes condiciones:
- a) Que las instalaciones dispongan de licencia municipal.
- b) Que las instalaciones de producción de calor dispongan de colectores. Que los colectores estén homologados por la Administración competente con un mínimo de 4 m².
- c) En el caso de sistemas de aprovechamiento eléctrico, tener una potencia mínima de 1kw.
- d) Si las instalaciones se han realizado en inmuebles de uso residencial, la bonificación será del 50 %; si se han realizado en inmuebles de uso no residencial, del 25 %.

Importe de la bonificación:

- Uso residencial: la bonificación total no podrá superar el 50 % del coste de ejecución material de la instalación, con un límite de 1.000 euros.
- Uso no residencial: la bonificación total no podrá superar el 50 % del coste de la ejecución material, con un límite de 3.000 euros.
- Importe de la bonificación: La suma de las subvenciones y bonificaciones recibidas para la instalación (incluida la del Ayuntamiento de Aretxabaleta) no podrá superar el 50% del coste de ejecución material de la instalación. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de la documentación justificativa de las subvenciones recibidas.

A.2.- Los pisos y locales situados en edificios sujetos al régimen de propiedad horizontal.

Condición:

- La instalación será compartida para el suministro de energía a todos o parte de los pisos y locales o ser individual para un único piso o local, y el cumplimiento de los mismos requisitos a que se refiere el apartado anterior.
- Que el piso o local esté vinculado a la instalación.

Bonificación:

- La bonificación será del 50 %.
- Cuando se trate de una instalación compartida, la bonificación se distribuirá entre todos los participantes en función de su participación en el autoconsumo.

Importe de la bonificación:

- La bonificación total no podrá exceder del 50 % del coste de ejecución material de la instalación repercutida a cada propietario.
- Instalaciones de más de 5 kw: límite de 3.000 euros.
- Resto de instalaciones: límite de 1.000 euros.
- Importe de la bonificación: La suma de las subvenciones y bonificaciones recibidas para la instalación (incluida la del Ayuntamiento de Aretxabaleta) no podrá superar el 50% del coste de ejecución material de la instalación. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de la documentación justificativa de las subvenciones recibidas.

A.3 Para solicitar la bonificación:

Plazo:

- En cualquier momento anterior a la finalización de la duración de la bonificación.
- Surtirá efectos desde el período impositivo siguiente al que se solicite.

Documentación a aportar en el momento de realizar la solicitud:

- Proyecto o memoria técnica.
- Declaración realizada por técnico competente visada/aceptada por el colegio oficial correspondiente.
- Cuando no se presente la declaración de técnico competente: certificado de habilitación técnica que justifique expresamente que la instalación cumple con todos los requisitos



establecidos en los párrafos anteriores (y que es objeto de bonificación). En el caso de pisos y locales en régimen de propiedad horizontal, además de los anteriores:

- Relación de propietarios participantes en la instalación y documento con las cantidades repercutidas a cada uno de ellos.
- Cualquier otra documentación que se considere oportuna.

A.4.- No se bonificará la instalación de sistemas de aprovechamiento térmico o eléctrico cuando la normativa lo exija y en la cantidad que exige la ley. Las instalaciones supletorias recibirían las mismas condiciones y bonificaciones que las mencionadas anteriormente

- B) 50% para los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del Programa de Vivienda Vacía regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 316/2002, de 30 de diciembre. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a la presentación en este Ayuntamiento del certificado correspondiente del Gobierno Vasco.
- C) Se aplicará bonificación a las familias/unidades convivenciales numerosas, con límite de las bases imponibles. Los porcentajes de bonificación se calcularán en función de los ingresos y del número de hijos/hijas, del siguiente modo:
Base imponible:

Hijos-Hijas	0 -12.000 €	12.000-24.000 €	24.000 - 50.000 €	50.000- 90.000 €	Más de 90.000 €
1-2	60 %	0 %	0 %	0 %	0 %
3	90 %	90 %	50 %	20 %	0 %
4	90 %	90 %	70 %	40 %	0 %
5 o más	90 %	90 %	90 %	60 %	0 %

Será requisito imprescindible que en el título de familia numerosa consten tres o más hijos.

En caso de que algún hijo/hija de la familia/unidad convivencial numerosa padezca algún tipo de discapacidad o incapacidad laboral declarada, el número de miembros de la unidad familiar/unidad convivencial se verá modificado, ya que dicha persona computará a estos efectos como dos.

De acuerdo con el art.28.2 de la Ley 39/2015 y el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, el Ayuntamiento de Aretxabaleta consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, en el Registro del Gobierno Vasco y a través del nodo de interoperabilidad Nisae, la siguiente información para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la bonificación:

- Dirección general de Policía: Consulta y verificación de datos de identidad
- Haciendas Forales: Consulta de IRPF
- Diputación Foral de Gipuzkoa: Consulta de IRPF
- Dirección general de catastro: Consulta de datos catastrales
- Haciendas Forales: Consulta de Bienes Inmuebles
- Gobierno Vasco: Consulta de títulos de familia numerosa

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el Ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes documentos.

En la solicitud de la persona interesada se pedirá declaración responsable en la que se manifieste que la persona solicitante ha informado a los demás miembros de la familia/unidad convivencial de que se consultarán datos tributarios que les afectan y que cuenta con su autorización.

En el momento de la recepción de la solicitud, si el Ayuntamiento no puede obtener telemáticamente la documentación necesaria, deberá aportarla la persona solicitante.

Límites del beneficio tributario

- Si el valor catastral supera los 200.000 euros, la bonificación se aplicará únicamente, como máximo, sobre dicho valor.



- El límite de la base imponible se determinará a partir del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del año anterior a la aplicación de la bonificación (base imponible general+base imponible/liquidable del ahorro), considerando siempre el número total de miembros que componen la familia/unidad convivencial.
- Esta bonificación será incompatible con otros beneficios tributarios establecidos o que se pudieran establecer sobre el IBI.
- La aplicación de la bonificación sólo alcanzará a la vivienda y desván o trastero ubicados en el inmueble donde reside habitualmente la unidad familiar.
- Para otorgar a un inmueble el carácter de residencia habitual será requisito imprescindible que en dicho inmueble figuren empadronados todos los miembros de la familia numerosa con derecho al beneficio tributario.
- no tendrá carácter retroactivo, es decir, la bonificación tendrá efectos en el impuesto del año de presentación de la solicitud

Requisitos y trámites formales para el disfrute de la bonificación.

- La condición de titular de familia numerosa deberá ostentarse a la fecha de devengo correspondiente al ejercicio tributario de aplicación (es decir, a 1 de enero de cada año). Se deberá presentar:

- a) Solicitud en la que se identifique tanto el solicitante como el inmueble objeto de bonificación.
- b) El nivel de renta se determinará en función de la declaración de IRPF presentada en el ejercicio anterior, teniendo en cuenta todos/as los/las componentes de la unidad familiar/unidad convivencial. En caso de no tener que presentar la declaración de IRPF, se aportará el certificado correspondiente.

VI.-RECARGO

Artículo 6.

De acuerdo con la Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, se aplicará un recargo del 100 % sobre las cuotas líquidas de este Impuesto por las viviendas que no constituyan residencia habitual del sujeto pasivo, salvo que cumplan alguna de estas condiciones:

- a) Las que se han puesto a disposición de algún organismo público de alquiler (Bizigune, Alokabide). Tendrán que aportar los contratos de cesión, tanto los de años anteriores como los que estén en vigor. Además, las viviendas que tengan un contrato de alquiler privado (tendrán que aportar el contrato y el certificado del Registro de contratos de Arrendamiento de fincas urbanas de la CAV). El alquiler deberá ser para uso de vivienda. Se informará de dichos contratos a la Hacienda Foral, para su conocimiento. No se admitirán cesiones gratuitas ni contratos con precio simbólico.
- b) Cuando no haya transcurrido un año desde el fallecimiento de la persona titular, contados a partir de la fecha de fallecimiento. Para acreditar dicha circunstancia, se aportará el certificado de defunción.
- c) Viviendas destinadas a actividades económicas, siendo imprescindible estar de alta en el IAE.
- d) Las viviendas que no son residencia habitual por problemas graves de salud.
- e) Las viviendas que se hallan en proceso judicial para dirimir sobre su propiedad.
- f) Las viviendas constituidas por uniones de 2 viviendas.
- g) Las viviendas consideradas desde el área de Urbanismo como inhabitables. Será necesario el certificado emitido por el departamento de Urbanismo en el que se constate el cumplimiento de este requisito.
- h) Las viviendas a las que se les ha concedido una licencia de obra de rehabilitación completa.
- i) Las viviendas sin persona empadronada, por estar en situación de dependencia reconocida oficialmente (como máximo una vivienda):

-Las viviendas sin persona empadronada, cuando la persona propietaria se haya trasladado a otra vivienda a causa de una situación de dependencia reconocida oficialmente. Dicha circunstancia se acreditará mediante el documento de dependencia y el certificado de empadronamiento.

- j) Las viviendas propiedad de personas de la 3ª edad, empadronadas en Residencias de ancianos (como máximo una vivienda). Esta circunstancia se acreditará mediante certificado de empadronamiento.
- k) Las viviendas que no son residencia habitual por motivos de movilidad laboral que sea superior a un año. Dicha movilidad laboral deberá haber sido causada como más tarde 2 años antes que la fecha de devengo del impuesto y será condición indispensable que el sujeto pasivo haya estado

hasta esa fecha empadronado en Aretxabaleta. Deberá presentarse además acuerdo entre el sujeto pasivo y su empresa donde se certifique que se ha producido la movilidad laboral.

- l) Cuando no haya transcurrido un año desde la compra de la vivienda, a contar desde la licencia de primera ocupación o desde la escritura.

VII.- NORMAS DE GESTIÓN

Artículo 7.

1.- Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Guipúzcoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determinen, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

2.- El acuerdo municipal adoptado se publicará en el B.O.G. una vez aceptado.

VIII.- DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza Fiscal con su Anexo, fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 1989 y entró en vigor el día 1 de Enero de 1990. Continúa aplicándose con las modificaciones reflejadas en el historial de modificaciones. En tanto no se acuerde su derogación estará en vigor.

IX.- HISTORIAL MODIFICACIONES

Fecha de aprobación por Pleno Municipal	Número y fecha de publicación B.O.G.	Fecha entrada en vigor	Artículos modificados
29 SEP 1989	247- 30 DIC. 89	1 ENE 90	Aprobación inicial
04 OCT 1990	250- 31 DIC. 90	1 ENE 91	Tipos impositivos
26 SEP 1991	248- 31 DIC. 91	1 ENE 92	Tipos impositivos
1992			No hay modificaciones
1993			No hay modificaciones
29 MAR 1994	74 - 22 ABR. 94	1 ENE 94	Exenc.centros docentes priv.concert..y bonif.50% VPO
10 OCT 1994	234- 13 DIC. 94	1 ENE 95	Tipos impositivos
09 OCT 1995	233- 11 DIC. 95	1 ENE 96	Tipo impositivo urbana
07 OCT 1996	237- 10 DIC. 96	1 ENE 97	Tipos impositivos
06 OCT 1997	243- 22 DIC. 97	1 ENE 98	Tipos impositivos
22 OCT 1998	247- 29 DIC. 98	1 ENE 99	Tipos impositivos
18 OCT 1999	247- 28 DIC. 99	1 ENE 00	Tipos impositivos
16 OCT 2000	246- 29 DIC. 00	1 ENE 01	Tipos impositivos
15 OCT 2001	249- 31 DIC. 01	1 ENE 02	Tipos impositivos
14 OCT 2002	247- 31 DIC. 02	1 ENE 03	Tipos impositivos
09 OCT 2003	249- 31 DIC. 03	1 ENE 04	Art.3,4,5 y 6 y tipos impositivos
10 MAY 2004	129- 08 JUL. 04	1 ENE 04	2 nuevas bonificaciones
13 OCT 2004	247- 27 DIC. 04	1 ENE 05	Tipos impositivos
10 OCT 2005	247- 30 DIC. 05	1 ENE 06	Tipos impositivos
16 OCT 2006	247- 30 DIC. 06	1 ENE 07	Tipos impositivos
08 OCT 2007	243- 14 DIC. 07	1 ENE 08	Tipos imposit.y bonificaciones
13 OCT 2008	251- 31 DIC. 08	1 ENE 09	Tipos imposit.y bonificaciones
05 OCT 2009	246- 30 DIC. 09	1 ENE 10	Tipos imposit.y bonificación b)
07 OCT 2010	244- 23 DIC. 10	1 ENE 11	Tipos imposit.y bonificación a)
10 OCT 2011	239- 20 DIC. 11	1 ENE 12	Tipos imposit.y bonificación a)
10 OCT 2011	4-05 ENE. 12	1 ENE 12	Tipos imposit.por increm.v.cat.
22 OCT 2012	248- 31 DIC. 12	1 ENE 13	Tipos imposit.,Recargo y Bonif.
21 OCT 2013	246- 27 DIC. 13	1 ENE 14	Tipos imposit.y exenc.recargo
20 OCT 2014	240- 17 DIC. 14	1 ENE 15	Tipos imposit.y exenc.recargo



25 MAY 2015	129- 09 JUL. 15	9 JUL. 15	Condición m) para no aplicar recargo.
28 JUN 2016	166- 31 AGO 16	1 ENE 17	Tipos imposit.por nuevos v.c.
17 OCT 2016	246- 29 DIC. 16	1 ENE 17	Modif.bonificación C)
19 OCT 2017	239- 18 DIC. 17	1 ENE 18	Tipo impositivo residenciales
30 OCT 2018	248- 27 DIC. 18	1 ENE 19	Tipo imp.resid. y bonif. c)
23 OCT 2019	244- 23 DIC. 19	1 ENE 20	Tipo impositivo residenciales
22 OCT 2020	245- 23 DIC. 20	1 ENE 21	Bonificación A)
18 OCT 2021	245- 24 DIC.2021	1 ENE 2022	Tipo impositivo resid., bonificación A), condición n) para no aplicar recargo
17 OCT 2022	237 – 16/12/2023	1 ENE 2023	Bonificación A), tipo impositivo residencial
11 OCT 2023	245 – 22/12/2023	1 ENE 2024	Tipo impositivo residencial
10 OCT 2024		1 ENE 2025	Tipo impositivo residencial, bonf.fam.numerosa,recargo viv.vacía

ANEXO

Fecha de la sesión: 10.10.2024.

El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana para los bienes urbanos situados en suelo industrial o terciario según las ponencias de valoración es de 0,600 por cien.

El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana para los restantes bienes urbanos según las ponencias de valoración aprobadas es de 0,2948 por cien.

El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Rústica es de 1,1 por cien.

EL ALCALDE,

EL SECRETARIO,